



## Ispilu hautsia Mercè Rodoreda

Liburu hau harribitxizat joko nuke, zentzu guztietan. Familia baten saga kontatzen du, eta ikaragarri ondo narraturik dago. Geure baitan denok daramagun sagarekin bat dator era harrigarrian. Areago, saga honek gogoratu egiten digu egon badagoela gure egunez haratago zerbait, gu geu transzenditu egiten gaituena; esaterako, belaunaldi berrietan kimu berriak txertatzen ditugunean, gure ondorengoek familiako sagari jarraipena eman diezaioten, harik eta familia osoa ahantzian eta gainbeheran erori arte.

Esan nahi dut pertsona guztiok daukagula saga familiar bat, eta saga hori iristen dela gure oroimena iristen deneraino. Orokorrean, sagak (famiak, gizabanakoak) ahantzian erori ohi dira, sagaren narrazioa azal ginetik edo era deskribatzaile batez behintzat egingo lukeen jeinuzko idazle bat –familia bakoitzeko bat– sortzea oso zaila baita, noski. Bestalde, sagen ahozko kontakizunak galduz doaz, belaunaldien arteko distantzia handituz doan neurrian.

Liburu amaitu ahala, denbora galduaren mina sentitu dut. Baina min- edo tristura-mota unibertsal batez ari naiz, lehenago edo beranduago pertsonak guztiok sentitzen duguna, bai bizitzan aurrera egitean bai maite genituen pertsonak (senideak gehienbat) goizegi galtzean, orduantxe erasan ohi digularik.

Alde horretatik, oroitzapenek betetzen duten zeregina garrantzitsua da, zeren, azken finean, historia kolektibo bat badagoen moduan, oroimen familiar bat –edota indibidual bat– ere badago. Oroimen kolektibo guztiak, sozialak nahiz familiarak izan, oroimen indibidual askoren emaitza direla esan daiteke, eta denak batera oroimen bakar bat eratzen dute.

Baina oroimena ez da bere baitan itxitako zerbait. Izan ere, egitate objektiboez gain (edo objektibotzat jotzen ditugun egitate objektiboez gain), interpretazio indibidualetatik abiatua den oroimen historiko bat ere badaukagu; eta horrelako kasuetan, aparteko garrantzirik ez du izaten oroimen horiek neurri handiagoan edo txikiagoan elkar kontrajarrita egoteak ala ez.

Izaera unibertsala erdietsi duten liburu guztiekin gertatzen den bezala, Mercè Rodoreda-k aipatu sentimendu unibertsala partekatzea eta helaraztea lortu du, eta nire ustez, hor datza liburuaren meritua, beti ere familia-saga baten hiru abiapuntuak oinarritzat hartuta: hasiera, bilakaera eta gainbehera.

Gainbehera, bere aldetik, ekidinezina da, gizakiaren bilakaeraren parte izanik. Denok badakigu gizaki ororen faseak zeintzuk diren: jaiotza, haurtzaroa, gazteria, helduaroa eta azkenik, zahartzaroa eta heriotza. Fase horietatik ihes egiterik ez dago. Beraz, gizaki guztiok iristen gara gure gainbeherara. Ulertzen erraza da; onartzen, berriz, zailagoa.

Beste alde batetik, gainbehera kolektiboa izango genuke. Hau ere familia batena izan daiteke (Ispilu Hautsia liburuaren kasuan bezala), edo gizarte batena ere bai. Batzuetan,

gainbehera sozial batek familia baten gainbehera ekar dezake. Espainiako Gerra Zibilak, esaterako, gainbehera soziala eragin zuen, familia askoren –saga askoren– gainbehera berekin ekarri zuen. Liburuan, gerra zibilak gainbehera hori azkartzen du, baina ez da arrazoi nagusia, lehendik zetorrelako...

Familia baten gainbehera gizabanako batena baino korapilatsuagoa da, giza biologiaren legeei nahitaez men egiten ez dieten arrazoi batzuekin lotura duelako. Arrazoiak ugariak dira, besteak beste: istripuak, erabaki okerrak, tarak, utzikeriak, traumak, pertsonen izaera eta nortasuna, gertaera sozialak... Familia bat bere gainbeherara eraman dezaketen arrazoiak ugari-ugariak dira, beraz. Eta arrazoi guztion artean baten bat nabarmentzea litekeena balitz ere, arrazoi horiek guztioriek elkarri eragiten diotela ezin dugu onartu baizik. Hala da eta.

Urte askotxo igaro dira Mercè Rodoreda liburu hau idatzi zuenetik. Garai hartan, ez dut uste genetikari buruzko ezagutza oso zabaldua zegoenik, genetika bera zientzia gisa aurkitzeko baitzegoen (Ispilu Hautsia 1974an kaleratu zen). Horregatik, ondoko gogoetak apur bat lekuz kanpokoak izan daitezke, baina, bueno, badakizue nik liburu-kritikak baino gehiago, liburu-iruzkinak egiten ditudala. Liburu batek iradokitzen didana espresatzen saiatzen naiz, ez besterik. Eta zeharkako gogoetak ere gustukoak ditut, liburuak iradokiak direnean.

Galdera, orduan, honako hau da: familia baten saga iritsi al daiteke bere behin betiko bukaerara, bere erabateko bukaerara? Hau da, familia baten ondare genetikoa erabat eta guztiz galdu al daiteke, behin betiko? Garbi dago erantzun hau ondorengoekin estu-estu loturik dagoela, ondorengorik gabeko familia bat –itxuraz, behintzat– bere bukaerara iristen baita.

Hala ere... zer gertatzen da ondare genetiko guztiorrekin? Giza genetikari pilatu zaion mezu sekretu eta sotil guztiori ez ote dago presente, akaso, gizateria osoan, ez ote dago planeta osoan zehar sakabanatua, lurreko herri guztietan, haien kultura, haien hizkuntza, haien erlijioa edo haien ateismoa direnak direla izanda ere?

Baietz erantzutea giza hilezkortasunaren aukerari baietz erantzutea litzateke. Hortaz, zer kostatzen zaigu galderari baieztoko erantzuna ematea, nahiz eta gizatasun, urrikaltasun hutsagatik izan...?

Gainera, nola egon gaitezke erabat ziur familia baten ondare genetikoa betiko galdua dela? Hori erabat ziurtatzerik ez dago. Beti egongo da-eta zalantza-izpi bat: ahaide urrun hura, aitortu gabeko seme bat izan zuen beste hura, inoiz ezagutu ez genuen izeba txoro hura, Amerikara joan eta inoiz bueltatu ez zen osaba hura...

Eta, zergatik amaitu dut ondare genetikoei buruz hitz egiten, “Ispilu Hautsia” nobela familia baten saga besterik ez bada, non narratzen zaizkigun familia baten gorabeherak, eta ez ondare genetikoa, baizik eta pertsonaiek protagonizatutako egitateak, ekintzak, eta pertsonaiek ahoskatutako –edota isildutako– hitzak...? Agian, lehen esan dudanagatik: ondare genetikoa nolabait betikotu egiten gaituelako, heriotzatik nola edo hala salbatzen gaituelako, eta horri esker, gure bukaera horren miserablea izango ez dela sinestarazten digulako, horren miserablea ez, “baikorragoa” baizik, gure patuari dagokionez, eta batez ere, bizitzaren zentzuari dagokionez.

Edo, akaso, hori diot liburuko protagonistak bizirik nahi ditudalako: Teresa, Nicolau, Miquel Masdéu, Salvador Valldaura, Joaquim Bergadà (Quim), Fontanills, Amadeu Riera, Sofia, Eladi, Pilar, Jesús Masdeu, Armanda, Maria, Ramon, Jaume... Zeinen erraza izango zen, horien orde z gure sagakoen izenak jartzea... beste istorio bat, beste ahantzi bat, beste joritasun eta beste gainbehera bat, gertukoa oraingoan, gure odolekoa berau, gure begien aurrean mamitu arte.

Ikusten duzue, nobela eder baten aurrean gaude, gai larriak, transzentalak planteatzera bultzatzen gaituena. Eta txikikeria bat edo beste kenduta, bikain itzulita dago.